

Prest!



BERBETAN: **ESTI BLANCO-ELORRIETA** PSIKOLINGUISTA

ERREPORTAJEA: **MENDE ERDIA HIZKUNTZAK IRAKASTEN** BARKUA: **EUSKAL EZKONTZA**

202-203-205-206-207-



Sustatzailea

Verbaizu
euskara elkarte

Babesleak



DEUSTO 3 BIZIRIK
Comercios, servicios y hostelería de Deusto



Laguntzaileak

Hedabide honek honako erakundeen dirulaguntza jaso du, baina BLB Komunikazioa Kooperatiba Elkarteak da edukiaren erantzule bakarra



Babestu
Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak
Helbidea
Telefonoa
E-posta
Kontu zenbakia (Iban)

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

aurkibidea

	Helene Sarasola Isazelaia - Iñigo Martinez Peña		Iritzia	4
	Asier Gonzalez Garcia		Gureak kanpoan	5
e	erreportajea Mende erdia hizkuntzak irakasten <i>Bilboko Hizkuntza Eskola 50. urteurrena ospatzen ari da ikasturte honetan. Ibilbide luze honetan aldaketak hamaika izan dira: irakasten diren hizkuntzak, irakasteko eta ikasteko metodologia, baliabideak, ordutegiak... Horiek guztiak ondo ezagutzen dituzte Marisa Azkoagak eta Arantza Beaskoetxeak, 70eko hamarkadatik bertan irakasle aritutakoak. Biekin elkartu gara eskolaren bilakaerari buruz sakondu nahian.</i>			6
	Ibarrekolanda BHI		Eskolak	10
	Pedro Urutxurtu, Antzuolan hil zen Deustuko alkatea (1893)		Behin batean	12
	Inaute aroa iritsi da!		Artikulua	14
b	berbetan ESTI BLANCO-ELORRIETArekin <i>Pertsona elebidunen garunaren egitura aztertzen ari da Esti Blanco-Elorrieta (Deustu, 1990) AEBetako New York Universityn. Hizkuntza guztiak egitura kognitibo beraren parte direla ondorioztatu du, eta batetik bestera aldatzeak ez duela maila neuralean ahaleginik ekartzen. Forbes aldizkariak ikertzaile gazteak saritzeko duen Forbes 30 Under 30 zerrendan gehitu berri du, zientzia atalean.</i>			16
	Gor-mutu eta Itsuen Eskola (1933)		Irudiak berbetan	21
	ANTZERKIA ETArek Agiri bulegoa JAI HERRIKOIAK Euskal Ezkontza PINTXODROMOA Gallastegi Jatetxea KULTUR TXOTX Mikeldi Dantza Taldea eta Libe Martinez De Rituerto		barkua bete herba	24

Prest!

Argitaratzailea:

BLB Komunikazioa Koop. Elk.

Tel: 94 447 10 42

Ramon y Cajal 42

Deustu 48014

bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra

Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Borja Sarriñandia-Ibarra, Andoni Lopez, Asier Robles, Aitor Sarriñandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurreaga

Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deustu eskola, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazio eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazio Jai Batzordea

Argazkiak: Ecuador Etxea

Publizitatea: Jone Gartzia Gerra

Diseinua: BOST

Maketazioa: Laura Freijo Iglesia

Inprimategia: Antza

Ale kopurua: 2.800

Lege Gordailua: BI-571-01

ISSN: 1577 - 9017



Helene Sarasola Isazelaia
Ikaslea

Inauteriak gure sustraieretatik ulertuta

Jaiak eta euskaldunak aipatzerakoan, denok sentitzen gara zertxobait identifikatuta. Berriz ere, demasako festa giroa antolatatu dugu Deustuko Inauterietan. Ohituta gaude egutegian eliza katolikoak markatutako egunak ospatzera: San Juan, San Fermin, San Prudentzio... Bada, esan gabe doa Eliza katolikoak hainbat tradizio eta usadio bereganatu dituela historian zehar; baina, kristautasunaren aurretik ere, hainbat adituk adierazi dute erritoak, ohiturak eta sinesmenak existitzen zirela; gaur egun ere badirauteak.

Juan Antonio Urbeltzek, euskal antropologoak eta folkloristak, luraren heriotza eta berpiztea ulertzeko nekazaritza ezinbesteko aurkikuntza izan zela aipatzen du. Bada, Urbeltzen esanetan nekazariak lur emankorrak ez izatearen eta garai latzen beldur ziren; hala nola lehortee, zomorro plaguek edo gaixotasunek herritarrak ikaritzen zituzten. Finean, bizirauteko baliabide ezak betidanik ekarri du izua.

Lur-lanek naturaren aldaketa ziklikoaren zergatia azaltzen

dute. Beraz, hainbat lekutan, tartean Euskal Herrian, luraren emankortasuna ziurtatzeko, herritarrek erritoak antolatzen zituzten, adibidez, inauteriak. Mozorroen eta dantzen bidez, heritarrek zomorro-plagak uxatzen zituzten, eta hortik datoz zomorrotu/ mozorrotu hitz jokoa, momotxorroak, joaldunak eta beste hainbat dantza, kanta eta pertsonaia. Urbeltzek ikerlan luze eta bikaina egin du inauterien berrinterpretazioa planteatuz, zaharra bezain modernoa den teoria. Euskararen kasuan, Euskal Herriatik sortua eta euskaraz bakarrik ulertu daitekeena.

Edozein lurraldek beharrezkoak ditu bertako hizkuntzan sortuak diren kontakizunak. Bada, kultur transmisioaren gakoa kultur ezaugarriak jasotzea eta belaunaldi berriei igarotzea da. Beti ere, gaurkotuz eta, ahal delarik, aberastuz. Hezkuntzaren bidez, euskal kultur transmisioa bermatu beharko litzateke; batu eta landu egin behar da dagoena, gehiago etorriko bada. Asisko Urmeneta margolariak *Asti Hitza* komiki nobela liburuaren aurkezpenean esan zuenarekin bukatuko dut: mitorik ez duen herria hotzez hila da.



Iñigo Martinez Peña
Filosofia irakaslea

Bizitza zenbakietan

Gure ama urteak zenbatzen dihoa, baina aspaldi ez da zenbakiekin identifikatzen, arrotzak egiten zaizkio zifrak. Batzuetan harridura edo-eta galdera ikurrarekin oihukatzen du: "84!?". Sinestezina. Beste batzuetan ispiluaurrean bere buruari galdetzen dio: "Non daude izandako hanka politik?". Badirudi nitasun anitzak gorputz bakarrean batzen direla eta askotan zaila izaten dela adinarekin identifikatzea.

Gogoratzen dut ospitalean erizain batek "amona" deitu ziola eta berak "nori buruz ari da?" galdetu zidala irribarretsu. Amaren bizitzaren kontakizunetan, kontu-kontari, momentuak aurrera edo atzera saltoka doaz, linealtasunik gabe. Garaiak, bizipenak... erabat nahastuta sentitzen ditu, ametsetan bezala. Autobiografia ordenatu bat egitea ezinezkoa dirudi, ilusioak, ahaztutakoak, beldurrak edo desirak korapilaturik baitaude giza bizitzan.

Zentzu horretan, Marc Augé antropologoak *adinetik kanpo* sentitzen dela dio, nahiz eta denboraren zama ukazina izan.

Ez du bere adina guztiz sinisten, sekula ez du lortu. "How old are you? I am...", ingelesez galderak zama gehiago dauka, baina benetan nire adina ote naiz? Aritmetikaren erdi-egi, erdigezuraren sentsazioaren menpe denborak adinik ez daukala ondorioztatzen du.

Nik ez dakit zer pentsa. Batzuetan uste dut ez daukagula gure adina baizik eta berak gu gaituela. Bien bitartean nire haurtzaroko hiri eta herrietako obrak, erreformak, proiektu erraldoiak, paisaia aldaketak... arraro bizi ditut. Nire txikitako memorian hutsuneak zabaltzen dituzte, intimitatearen kontrako atentatuak balira. Ez ote da mendira paseoan joatea aldaketa gehiegirik gabeko denborari eusteko modua?

Hala ere, amarekin berbetan, konturatzen naiz ez dagoela paradisu galdurik, une bakoitzak bere argiak eta bere itzalak dituela, izan zituela, eta bizitzaren korapiloan eguna dastatzeko aukera beti zabalik dagoela, urteen aritmetikatik kanpo.





Asier Gonzalez Garcia

Jatorria: Ibarrekolanda

Bizitokia: Bristol

Lanbidea: Erizaina



“Bertokoekin Brexitari buruz hitz egiten saiatzen zarenean askotan saihestu egiten dute”

Testua: PREST!

Zergatik joan zinen Ingalaterrara?

Lehenenik eta behin, kanpoan bizitzeko esperientzia bizi nahi nuelako eta, bigarrenik, erizain moduan lan egiteko beste modu ezberdin bat eza-gutu nahi nuelako, kontuan hartuta erizainok Ingalaterran ditugun lan baldintzak hobeak direla.

Nola amaitu zenuen Bristolen?

Behin Ingalaterran egonda, agentzia batekin jarri nintzen harremanetan eta Bristoleko ospitalean lana eskaini zidaten. Bristolera mugitu nintzen ospitalearekin elkarriketa bat egiteko eta behin lana ziurtatu zidatenean, hemen geratzea erabaki nuen.

Erraza izan da lana aurkitzea?

Bai, erizainen arloan nahiko erraza da hemen lana aurkitzea. Erizainen behar handia daukate eta hizkuntza baldintzak betetzen badituzu lana arazo barik aurkituko duzu. Gainera, hainbat agentzia daude bitartekari moduan egiten dutenak eta lana aurkitzen laguntzen dizutenak, nire kasuan egiten nuen bezala.

Nolako hiria da Bristol?

Bristol hiri ikaragarria da. Hainbat auzotan banatzen da. Auzoak normalean nahiko lasaiak dira eta bizimodua hirigunean egiten da. Kultura desberdineko pertsona asko batzen dira hemen. Sozialki aukera asko eskaintzen duen hiria da eta lan egiteko aukera asko ere eskaintzen ditu.

Nola moldatzen zara hizkuntzarekin?

Pentsatzen nuena baino gehiago kostatzen ari zait. Nire ingeles mailan alde nabarmena dago ospitalean hasi nintzenetik hona, baina egia da batzuetan zaila egiten dela nire ama hizkuntza ez den mintzaira baten aritzea. Dena den, Bristolen, erdara hitz egiten duten pertsona ugari daude eta horrek beti laguntzen du.

Bertako lagunik egin duzu?

Batzuk bai, saskibaloiko talde batean jokatzeko dudalako eta ospitalean hainbat jende ezagutu dudalako, baina, egia esanda, normalean gure herrialde edo hizkuntza bereko jendearekin batzen gara.

Zer giro dago Brexitarekin?

Ez da asko hitz egiten horri buruz, bertokoek saihestu egiten dute. Momentuz denak berdin jarraitzen du, aldaketa askorik gabe.

Nola bizi duzue atzeritarrek?

Ez dakigu zer ondorio ekarriko dituen. Erizainen arloan, adibidez, ez dakigu nola aldatuko den gure egoera. Momentuz badakigu 2020ko abendura arte berdin mantenduko garela. Hortik aurrera ikusi beharko dugu zer nolako akordioak sortzen dituzten.

Luzerako geratzeko asmoa duzu?

Ez dakit, printzipioz urte bat egoteko asmoarekin etorri nintzen. Hemen urte askotarako geratuko ez naizela badakit eta Brexitek zelan eragingo digun jakiterakoan erabaki bat hartzeko unea izango da.

Zer duzu faltan?

Gauza asko, familia eta lagunak batez ere, bertako kultura... baita Bilboko bizimodua ere, hango giroa berezia baita eta, hemengoarekin konparatuta, alde handia dago.



Marisa Azkoaga eta Arantza Beaskoetxea

MENDE ERDIA HIZKUNTZAK IRAKASTEN

Bilboko Hizkuntza Eskola 50. urteurrena ospatzen ari da ikasturte honetan. Ibilbide luze honetan aldaketak hamaika izan dira: irakasten diren hizkuntzak, irakasteko eta ikasteko metodologia, baliabideak, ordutegiak... Horiek guztiak ondo ezagutzen dituzte Marisa Azkoagak eta Arantza Beaskoetxeak, 70eko hamarkadatik bertan irakasle aritutakoak. Biekin elkartu gara eskolaren bilakaerari buruz sakondu nahian.

Testua: Jone Gartzia

Marisa Azkoaga Bilboko Hizkuntza Eskola sortu eta bizpahiru urtera sartu zen ingeles irakasle. Oso ondo gogoratzen du nola izan zuen eskolaren berri. Madrilen fonetika ikastaro bat egiten ari zen irakasleak Bilbon Hizkuntza Eskola Ofiziala irekiko zutela esan zionean. Orduan beste proiektu batzuk zituen eskuartean eta Marian Pikabeak eskola gomendatu zion arte ez zen gerturatzerara animatu, bi urte geroago. “Oso eskertuta nago berarekin”, diosku irribarrea ahoan.

Arantza Beaskoetxeak ere oroitzapen politak ditu eskolan euskara irakasle hasi zeneko garaitik. 23 urte baino ez zituen eta Euskara Saila sortu berria zen, 1976an. Bera bi ikasturte geroago sartu zen, 1978an. Gazte izanagatik, ez ditu saileko kideak ahazten. “Oso jende ezaguna eta euskal munduan entzutetsuak” zirela aipatu digu, eta ez

da gutxirako. Jabier Uriarte, Mikel Zarate, Eguzki, Belen Olaetxea, Jose Mari Irazola, Juan Mari Iraolagoitia, Adolfo Arejita, Jose Lasa edota Paul Mino izan zituen sailkide, asko ere bere irakasle izandakoak. “Paradi-suan sartzea bezala izan zen”, diosku harro.

Ilusio handiarekin hasi zituzten urteok. Eze-rezetik sortu behar izan zuten eskola; ez zegoen ikasteko libururik, azterketak egiteko eta ebaluatzeko metodologia bateraturik ere ez, eta euskara batua finkatu gabe zegoen oraindik. “Pentsa, orduan publikatzen ziren liburu eta metodo guztiak gure eskuetatik igarotzen ziren”, azaldu digu Marisak. “Guk, orde, ez genuen sikiera metodorik. Propio sortu behar izan genituen”, Arantzak. Horregatik uste du hasierako irakasleek oso bere egiten zutela eskola, egungoek baino gehiago, martxan jarri behar izan zutelako.



“Etengabe sortzen eta gauza berriak egiten egoten ginen. Orain ematen du gobernuak agintzen duela eta eskolak obeditu baino ez”, dio.

Hamaika aldaketa

Irakasteko erak, metodologiak edota ikasleak aztertzeko moduak ere zeharo aldatu dira. 70eko hamarkadan klasean ez zuten ez ordenagailurik ez Internetik erabiltzen. “Klasean sartu aurretik magnetofonoa hartzen genuen beti”, oroitzen du Marisak. Gerora telebista ere erabiltzen zuten klaseetan. Hala ere, eskolak bazituen hainbat baliabide ikasleentzako: autoikaskuntza gela, liburutegia, irakurtzeko gela...

Gaur egun hori dena zeharo aldatu da. Arantzaren arabera, “liburutegira gero eta jende gutxiago joaten da” eta Internet hedatu zenetik kontsulta asko bertan egiten dira, dela ahoskera, dela hiztegia, dela informazioa... Era berean eskola egokitu da aro berrietara: lehengo liburutegia eta irakurgela elkartu eta multimedia gela egin zuten.

35 orduko ilarak

Ikasleen perfila ere zeharo aldatu da. Hasierako urteetan nahiko edadetuak ziren, nagusiei ematen baitzieten lehentasuna izen-ematean. Matrikulazio kanpainak, zer esanik ez, ez dute zer ikusirik behinolakoekin. 1980ko urriaren 10eko La Gaceta del Norte egunkariak jaso zuen Arantzak berak azaldu diguna: jendeak izugarritzko

itxaronaldiak egiten zituen plaza lortzeko esperantzarekin. Iritsiera ordenaren arabera hartzen zuten, eta askok gaua igarotzen bazuten ere, ez zeukaten inolako ziurtasunik matrikula lortzeko orduan.

Oraindik ere, jende asko geratzen da plaza gabe, baina egoerak hobera egin du. Izan ere, azken 30 urte hauetan hainbat eskola zabaldu dituzte inguruan. 90eko hamarkada arte Bilbokoaz gain ez zegoen beste Hizkuntza Eskola Ofizialik penintsularen

“Paradisuan sartzea bezala izan zen”



iparraldean eta horregatik lekutatik etortzen ziren ikasleak gurera. Marisak ondo gogoratzen du Santanderetik egunero etortzen zen emakume bat, ingeleseko klaseak jaso ahal izateko ahaleginak eta bi egiten zituena.

Areago, Bilboko eskolako irakasleek ere urrunera joan behar izaten zuten beste herrietako ikasleei azterketak egitera. Ekainean eta irailean Gasteiza, Donostiara, Iruñera, Santanderrera eta baita Oviedora ere mugitu behar izaten zuten, hango ikasle libreek titulua eskura zezaten. Euskara sailekoak Madrilera joaten ziren, Hizkuntza Eskola bazegoelako, baina ez euskara sailik.

Harremanak aldatu dira

Ordutegiei dagokienez, hasieran astean hiru orduko saioak egiten zituzten, astelehen, asteazken eta ostiraletan edo astearte eta ostegunetan banatuta, beti arratsalde. Orain, bi egunetan lau ordu eta erdiko klasea partitzen dute, eta 80ko hamarkadatik goizean eta eguerdian ere ematen dute klase.

“Arratsalde erdian, seiak inguruan, atse-denaldia egiten genuen eta Herr Weindel idazkari nagusiak irakasleei laranja zukua

eskaintzen zien gaixotu ez zitezen”, oroitzen du Arantzak. Irakasleen arteko harremana askoz estuagoa zela azaldu digu, elkarrekin egoteko tarteak zutelako. “Orain klase batetik bestera joateko bost minutu baino ez dituzte, eta sail bereko irakasleek apenas eza gutzen duten elkar, ordutegiak direla-eta, ostiraletan baino ez dutelako elkar ikusten”, diosku. “Eraikina bera da, baina harremana asko aldatu da”, erantsi du Marisak.

Hamaika anekdota


Bai Marisak, bai Arantzak ia bizitza osoa eman dute Hizkuntza Eskolan lanean. Urte guzti hauetan hamaika istorio eta pasadizo bildu dituzte, barre artean gogoratzekoak. Gorbeia mendi tontorrean topatutako ikasle baten azterketa aurreko zalantzak, etxera itzuli eta konturatu gabe familiarekin ingelesez hitz egiten jarraitzea... Denetarik gertatu zaie.

Biek ala biek maitasun osoz oroitzen dituzte momentu guztiak, arrastoa utzi dutelako esperantzaz. Marisarentzat hunkigarria da ikasle ohiekin topo egin eta benetan haren bizitzan bere alea jarri duela. Ez da lan makala hizkuntza berri bat irakastea, bai-



Urtarrilaren 31n Udalean egindako ospakizun ekitaldia.

na denetan inportanteena hizkuntzarekiko maitasuna piztea dela uste du Arantzak. Horrez gaindi, hizkuntzen ezagutza jende guztiaren esku jarri izana pribilegioa izan dela deritzote biek, “kalitatezko hezkuntza, publikoa eta merkea, ez elite batentzat pentsatua”. Aurretik ere eskolak bide horretan jarraitzea espero dute, gero eta eskaintza zabalagoarekin, bai plaza kopuruari dagokionean zein hizkuntza berriei dagokienean. “25. urteurrenean egunkari batean agertu zen eskolaren asmoa italiera, arabiera eta txinera sartzea zela. 25 urtetan italiera eta portugalerara baino ez dira sartu, ez daitezela beste 25 urte pasatu arabiera, txinera edo beste hizkuntzaren bat sartzeko”.



Hizkuntza Eskola eraikitzeko aukeratutako tokia. 1966ko urria. Txema Luzuriagaren artxiboa

APIRILEKO KRABELINAK NEGUAN LORATU DIRA

Erasmus+ Art Camp proiektuaren barruan, 2020ko otsailean Ibarrekolanda institutuko 20 ikaslek aukera izan dute Portugaleko Mealhada herrira joateko. Bertan astebeteko topaketa artistiko-kultural batean parte hartu dute Italiako eta Portugaleko beste ikasle batzuekin eta Cravo Garaia antzeslana taularatu dute.

Testua eta argazkiak
Sara del Valle

Art-Campean milaka gauza egin genituen. Lehenengo gauean, elkar ezagutu genuen italiarrak eta euskaldunok eta lehenengo momentutik harreman be-

rezia sortu genuen haiekin. Hurrengo goizean, portugesak ezagutu genituen eta haien jolas tradizionalak erakutsi zizkiguten. Arratsaldean, mahai-ingurua egin genuen arteak hezkuntza izan beharko lukeen garrantziari buruz eta, bide batez, hobeto ezagutu genuen elkar. Gau hartan "Welcome Party" -a izan genuen eta primeran pasatu genuen elkarrekin dantzan.

Bigarren egunean, antzokia erakutsi ziguten non hurrengo egunean antzeztuko genuen. Arratsaldean, bodega bat ikusi genuen eta portulgadarren musika tradizionala ezagutu genuen.

Ostegunean, egun osoan zehar egon ginen antzezlana prestatzen. Primeran atera zen eta benetan hunkigarria izan zen! Era berean, oso polita izan zen beste taldeek egindako lana ikustea.

Azkenengo bi egunetan, hainbat herri eta leku ezagutu genituen eta, horrez gain, arteari buruzko Forum-a izan genuen. Artearen garrantziari buruz asko pentsatu dugu bidaia honetan eta, horrekin batera, pilo bat algara, jolas, negar, txantxa, amets, istorio... Pilo bat lagun eramaten ditugu gurekin, bereziki, eta nahiz eta agurra gogorra izan, bada-kigu arteak batzen gaituela.






PEDRO URUTXURTU, ANTZUOLAN HIL ZEN DEUSTUKO ALKATEA (1893)

*1893ko uztailak 17 zituen. Deustuko Done Periko elizan hil kanpaiak hasi ziren
Pedro Urutxurturen alde. Hiru egun lehenago hil zen, Antzuolako tren istripu
beldurgarrian, artean herriko alkatea zela.*

Testua:
Hektor Ortega



Prentsan irakurri bezala kontatuko dugu. Barikua zen, uztailak 14. Zumagarragako 30. zenbakidun trena arratsaldeko bostak eta hamarretan abiatu zen herri horretatik, Madrileko korreoakin eta Ipar Euskal Herritik zetorren ekspresoarekin bat egin eta gero. Bilbon gaueko bederatzia eta laurdenean egon behar zuen. Trena honelaxe zegoen osatuta: makina bi, buruko bagoia, terzerako (hirugarren mailako) kotxea, buffet kotxea, primerako (lehenengo klaseko) truck kotxea, terzerako kotxe bi gehiago, korreo kotxea eta akabuko galga.

Trena behar zen orduan abiatu zen Zumarragatik eta arazo barik heldu zen Antzuolako galekura. Han ere, eragozpenik gabe, trenera igo zuen bidaiariren batek. Berriro ere aurrera egin eta orduan gertatu ei zen ezbeharra. Inor kargutu barik, buruan joian terzerako bagoiaren atzeko topea apurtu egin zen eta trenbidera jausi zen, non albo-alboka joan zen errailaren gainean gelditu zen arte. Orduantxe igaro zen bertatik azken bagoia, korreo-kotxea, alegia, eta horrek

topearen kontra jo zuen eta, ondorioz, trenbide-tik kanpora irauli zen.

Iraulketan ezkerretara egin zuen eta harekin eramane zuen tatarrez aurreko kotxea, eta horrek hurrengoa eta hiru bagoien pisuaren ondorioz primerako bagoia ere trenbide-tik atera zen eta honek ere aurreragokoak jaurti zituen kanpora... Katea hautsi zen arte. Trenbidean makina biak eta buruko furgua baino ez ziren geratu. Gainerako bagoiak, trenbide ondoko lubaganetik behera amildu ziren. Atzeko hirurak txiki-txiki egin da topatu zituzten. Primerakoak txabola baten kontra jo zuen eta barrualdea zeharo hondatuta gelditu zen. Buffet bagoiak, oster, irauli baino ez zuen egin eta trenbide-tik hiru metrora gelditu zen. Kalteak txikiak ziren.

Hasieran zazpi hildako izan zirela zabaldu zen arren, orotara hiru hildako eragin zituen istripuak, eta lau zauritu larri. Hildako bi emakumeak ziren, baina ez ditugu prentsan izen-deiturekin aurkitu. Bat "viuda de Maudet" bezala aipatzen



Antzuolako istripuaren ikuspegi orokorra. Argazkia: La Ilustración Artística.

dute eta, bigarrena, besterik gabe, Felipa, bere otseina. Elorrion egin zizkieten hileta-elizkizunak hilaren 17an, eta horri esker jakin dugu Felipa Lopez Lazkano eta Maria Josefa Ibargoitia Goi-koetxea zirela. Hirugarren hildakoa, oster, izen-deiturekin eta karguarekin aitatu zuten: Pedro Urutxurtu, Deustuko alkatea. Hirurak primerako bagoian hil ziren. Hamabost egun geroago, istripuan zauritutako ume bat ere zendu zen.

Urutxurturen gaineko oharrak

Pedro Urutxurtu edo Urrutxurtu Ordeñana Begoñan bataiatu zuten 1847ko uztailaren 17an. Haren aitaren (Juan) familia, Zeanurikoa zen; ama, Concepción, oster, Abandokoa. Azken herri horretan ezkondu ziren 1845ean. Familia Begoñan bizi izan zen, bertan jaio baitziren hala Pedro nola gainerako neba-arrebak (Luciano, Agustín eta Ezeikiela).

Hogei urte bete berritan ezkondu zen Pedro Deustura, Mari Cruz Arestizabalekin. Andrea senarra baino sei urte zaharragoa zen. Bere aita, Julian Arestizabal, Doneperriaga dorretxeko

azken errenteroa izan zen, Landa familiak erai-kina saldu eta ugazaba berriak eraitsi zuen arte. Gutxienez hiru alaba eduki zituzten Pedrok eta Mari Cruzek: Isabel (1869), Juliana (1871) eta Gillermina (1874).

Mari Cruz Arestizabal 1876an hil zen. Hamar urte geroago, Pedro bigarrenez ezkondu zen, orduko hartan Margarita Bilbao Arisperekin. Seme-alaba bi eduki zituzten, gutxienez: Pedro (1887) eta Luisa (1891).

1872an Pedro Urutxurtu bazebilen Deustuko Udalean, urte hartan zinegotzi. Berdin 1881 eta 1882an. Eta 1890 eta 1893 bitartean herriko alkatea izan zen, hil zen arte. Kontuan hartu sasoi hartan boto eskubidea gizonezko gutxi batzuk (ondasunen jabe zirenak) baino ez zeukatela.

Edozelan be, Urutxurtuk osperik handiena beste bide batetik lortu zuen: ortulari moduan. Bere ortuko produktuek fama handia zeukaten. Baina hori, beste historia bat da...



Kalderapeko
euskal kultur gunea

www.kalderapeko.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

INAUTE-AROA IRITSI DA!

Deustuko eta Arangoitiko inauteriak igaro dira, baina oraindik badaukagu non eta noiz mozerrotu. Otsailaren azkenean, hilak 29, Ibarrekolanda, Erribera eta San Inazion inauteriak antolatuta dituzte. Deustuko jaiak, gainera, martxoaren 13an hasiko dira. Aspertzeko tarterik ez, beraz.

Deustun kolorez beteriko inauteriak bizi ditugu aurten. Ekintza berririk egin ez arren, esan beharra daukagu geroz eta parte hartze handiagoa somatzen dugula antolatzen ditugun betiko ekintza guztietan, eta horrek ezerk baino gehiago pozten gaitu.

Deustuko Kuadrilek eman zioten hasiera asteburu osoko ospakizunari, auzoko kaleak musika eta giro onez betez. Deustuko Herriko tabernan musika bozgorailua piztu eta auzoko kaleetan barrena murgilduta, inauterietako giroa lau haizetara zabaltzea lortu zuten. Frontoian amaitu zen ostiral arratsaldeko kalejira, luntx eta txosnaren zabaltzearekin.

Arraroa egin zaigu baina, eguraldia alde izan dugu aurten ere. Goizeko eguzki izpiekin batera atera ziren Gure Herria dantza taldeko kideak Lantzeko Inauteriak dantzatzera. Halaber, ez ziren gutxi izan Done Petri plazako tailerretara hurbildutako umeak, Txantxiku, Gazte Alai eta Egunsentia aisialdi taldeek antolatutakoak.

Ostean, Tintigorri Konpartsak sukaldatuta, bazkari herrikoia egin genuen frontoian. Bazkalostetik aurrera musika izan zen arratsalde zein gau osoko protagonista. Aski du! Alde Zaharreko bikote gazteak alaitu zuen 300 pertsonatik gorako bazkalostea. Iluntzean,

Testua: Deustuko
Jai Batzordea
eta PREST!
Argazkiak: Ecuador
Etxea



Deustuko Inauterietako Desfile Nagusia.

bestalde, Deustualdeko taldeen txanda heldu zen, Viento en Popper, Rexeko eta Nize izan ziren, besteak beste, oholtza gainera igotako taldeak.

Azkenik, igandean, urteroko desfile jendetsua egin genuen. Eguerdian Julio Urquijo kaleetik abiatu eta Done Petri plazaraino ia 40 talde zein konpartsa hubildu ziren moztorro eta karrizak aurkezttera. Sari banaketaren ostean, De Tomeitos talde deustuarrarekin batera inauteriak agurtu genituen.

Arangoitiren ostean, Erribera, San Inazio eta Ibarrekolandaren txanda

Otsailaren 22an ospatu zituzten arangoititarrek inauteriak. Goizean goiz Putxera Lehiaketarako lapikoak prestatzen hasi ziren. Eguerdian, bazkaldu baino lehen, Goiri Batuke taldeak girotuta moztorro desfilea egin zuten auzoan zehar. Amaitzeko, moztorro eta putxeren sariak jaso eta elkarrekin bazkaldu zuten.

Ibarrekolanda, San Inazio eta Erriberako auzotarrek, aldiz, otsaileko azken egunera arte itxaron dute moztorroak jantzeko. Umeentzako tailer eta jolasak, desfileak, herri bazkariak, sariak eta zuzeneko musika ez dira inon faltako. Ibarrekolandan mexikar-jantzita aterako

dira kalera, Erriberan superheroiak izango dira egun batez eta San Inazio kolore gorria aukeratu dute moztorrogai.

Dagoeneko jaietara begira

Inauteriak atzean utzi baino lehen jaietara begira jarri dira Deustuarrak dagoeneko. Izan ere, bi aste baino ez dira falta Done Petri plazako tarimaren gainetik pregoia eta txupina botatzeko. Bereziak izango dira aurtengo jaiak, edo behintzat hori da Deustuko Jai Batzordeak aurreikusten duena. Momentuz aipatu daitezkeen berrikuntzen artean daude Mikeldik lau urterik behin egiten duen Euskal Ezkontza eta Deustuko plazan indartu asmo duten egitaraua. Umeek ekintza ezberdinetaz gozatu ahaliko dute hau posible egiten duen lantaldeari esker, eta, noski, ezin aipatu gabe utzi Deustuko Kuadrilek egindako egitarau propioak inoiz baino jarduera gehiago dakartzala.

Ohituta egon ez arren, larunbateko musika emanaldiak parkeko karpantik Deustuko plaza- lekualdatuko ditu Deustuko Jai Batzordeak, irisgarritasuna eta ikusgarritasuna handitzeko helburuarekin. Non hobe auzoko erdigunean baino?




berbetan

ESTI BLANCO-ELORRIETAekin

Psikolinguista

“Hizkuntza batetik bestera aldatzeak

Pertsona elebidunen garunaren egitura aztertzen ari da Esti Blanco-Elorrieta (Deustu, 1990) AEBetako New York Universityn. Hizkuntza guztiak egitura kognitibo beraren parte direla ondorioztatu du, eta batetik bestera aldatzeak ez duela maila neuralean ahaleginik ekartzen. Forbes aldizkariak iker-tzaile gazteak saritzeko duen Forbes 30 Under 30 zerrendan gehitu berri du, zientzia atalean.



Testua: PREST!

Argazkiak: Rosita Garcia

ez du maila neuralean esfortzurik eragiten”

Zer ikasi duzu?

Euskal Filologia lizentzia ikasi nuen Deustuko Unibertsitatean. Ostean, Hizkuntzaren Neurozientzia Kognitiboko mas-terra egin nuen BCBLn (Basque Center on Cognition Brain and Language), Donostian. Orain New York Universityn (NYU) Neurozientzia Kognitiboko doktore-tza amaitzen ari naiz.

Ikasketak hasi zenituenean, espero al zenuen zauden lekura heltzea?

Ez, inondik inora ere. Banekien ez nuela euskara irakasle jardun nahi, baina ikerketa munduan zeuden aukerak guztiz ezezagunak ziren niretzako.

Nondik datorkizu hizkuntzekiko zaletasuna?

Ez nuke jakingo jatorri zehatz bat azpimarratzen. Betidanik izan dut kuriositatea eta gogo beste leku batzuetako jendearekin hitz egiteko eta beti izan dut erraztasuna hizkuntzetan. Ziurrenik bien arteko konbinazioetik etorriko zitzaidan zaletasuna.

Nola amaitu zenuen New York Unibersityn?

Argi neukan doktoretza Estatu Batuetan egin nahi nuela. Garunak hizkuntza zelan prozesatzen duen ikertzeko laborategirik handienetako bat, handiena ez bada, NYUn dago. Horregatik erabaki nuen hona etortzea.

Zer ikertzen ari zara?

Gehien bat elebidunen hizkuntza arki-

tektura edo antolaketa burmuinean, hau da, zelako organizazioa eduki behar duen burmuinak elebidunek komunikatzeko daukaten gaitasuna izateko.

Zer dela eta? Nondik datorkizu ezaugarri hori aztertzeko jakin-mina?

Egia esan, jakin-mina ez dago gai horrekin bereziki lotuta. Orokorrean, gauzak zelan eta zergatik diren jakiteko jakin-mina daukat. Ikerketa mundura hizkuntzen atetik sartu nintzen eta behin bertan, beharbada Euskal Herriko errealtate linguistikoa dela-eta, elebitasunean zentratu naiz.

Forbes aldizkariaren errekonozimendua jaso duzu, 30 urtetik beherako ikerlariak sarritzeko *Forbes 30 Under 30* zerrendan sartu zara. Zer ekarriko dizu honek?

Batetik, ate asko irekiko dizkit finantzaketa bilatzerako orduan. Zerrenda honetan egoiteak esan nahi du norbaitek potentzial handia ikusi duela nire ikerketan eta, beraz, errazagoa izango dela orain beste batzuek berdin pentsatzea eta ikerketa hau diruz babestea. Bestetik, maila praktikoago batean, Forbes komunitatearen parte izatea-gatik denetarikoa onurak daude hoteletan, dendetan, edota coworking inguruetan; luxuzko marka askok beharpenak eskaintzen dizkiote zerrenda honetan dagoen jendeari. Era berean, Forbesek hainbat batzar internacional antolatzen ditu. Milaka inbertitzaile, *start-up* sortzaile etab. biltzen

“Ez dago hizkuntza zail edo errazagorik”

▷ ▷ SAKONEAN

Zerekin lotzen duzu dakizun hizkuntza bakoitza?

Euskara = nortasunarekin, gaztelera = funtzionaltasunarekin, ingelesa = akademiarekin, alemaniera = unibertsitate garaiarekin.

Zein da zure ama hizkuntza?

Euskara eta gaztelera.

Zer hizkuntza erabiltzen dituzu egunerokoan?

Ingelesa, euskara eta gaztelera.

dira bertan eta esfera horretan murgiltzeko aukera emango dit zerrendan egoteak.

Hizkuntza bat baino gehiago menperatzen dituzten pertsonen garunaren egitura aztertzen ari zara, zer aurkitu duzu?

Bi hizkuntzak egitura kognitibo edo neural berberaren parte direla, eta batetik bestera aldatzeak ez duela maila neuralean esfortzurik eragiten.

Aldea dago jaiotzetik eleanitzak direnen eta nagusitan hizkuntzak ikasten dituztenen artean?

Maila praktiko batean bai, noski. Zenbat eta arinago ikasi hizkuntza bat, orduan eta hobe izango da hizkuntza horretan lortzen den maila. Garunean alderik dagoen ez dakigu oraindik.

Euskara eta gaztelania distantzia linguistikoko handiko hizkuntzak dira. Zer da hori?

Hizkuntza bietako hitz gehienek ez daukate erro komunik, esaldiak eraikitzerako orduan molde ezberdinak erabiltzen ditugula eta elkarren artean ulertzerik ez dagoela.

Aukerarik izan al duzu euskal hiztunak aztertzeko? Nola aurkitzen dira informanteak?

Ez, ez dut ikerketarik egin euskal hiztunekin. Gure ikerketetako parte hartzaileak, gehien bat, datu base batean topatzen ditugu, eta gehienetan uni-bertsitateko ikasleak dira. Batzuetan, lakin jakin bat bilatzen dugunean, hiztun horiek dauden komunitateetara bertara jo behar izaten dugu. Adibidez, pasa den urtean zeinu hizkuntzan eta ingelesez elebidunak ziren pertsonak behar nituen. Gorrien komunitatera eta haien ekitaldietara joan nintzen parte-hartzaile bila.

Zenbat hizkuntza erabiltzen dira New Yorken?

Ingelesa batez ere, nahiz eta gaztelera asko entzuten den Erdialdeko eta Hego Ameriketatik etorritako pertsonak medio. Hiriaren gune batzuetan txinera asko entzuten da. Denetara, 400 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira New Yorken.

Hizkuntza zailak eta errazak daude?

Ez, badaude hizkuntza batzuk maila batean aberatsagoak direnak (esaterako, fonologian) eta beste batzuk beste maila baten (adibidez, morfologian). Normalean, bigarren hizkuntza bat ikasterakoan, zenbat eta aberatsagoa izan maila batean, orduan eta gehiago kostatuko zaigu arlo hori menperatzea, baina ez dago hizkuntza zail edo errazgorik, oro har.

Zer da hizkuntza bat ondo jakitea?

Ez dago erantzun bakar bat. Orokorrean, arazo gabe komunikatzeko gaitasuna izatea da ondo jakitea, baina horren barruan zuk eta nik beharbada akats kopuru ezberdina onartuko ditugu *ondo* horren barruan.

Zein adinera arte ikasi daiteke ondo hizkuntza bat?

Beti dago aukera hizkuntza bat ikasteko, baina zenbat eta zaharrago izan orduan eta zailagoa izango da ondo ikatea.

Nola barneratu daiteke ondo hizkuntza bateko azentua?

Praktikatuz, ahalegina eginez beste hizkuntzaren soinura hurbiltzeko, eta ikasi nahi dugun azentua daukan pertsona batengandik ikasiz. Ezinezkoa da norbaitek azentu ona ikatea, azentu onik ez daukan pertsona batengandik ikasten badu.

Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, errazagoa da hizkuntza berriak ikatea?

Zenbat eta hizkuntza gehiago jakin, orduan eta aukera handiagoak izango dituzu hurrengo hizkuntza dakizkizunenen familiakoa izateko, eta beraz, abiatzeko oinarri bat izateko.

Onurarik dakar eleanitza izateak?

Noski, ikasten dugun hizkuntza bakoitzarekin kultura berri bateko ateak irekitzen zaizkigu, baita pertsona talde berri batekin konektatzeko aukera ere.

Ikusi da pertsona elebidunek garunaren zahartze-prozesuan abantailak dituztela.

Zertan datza horrek?

Ikerketa batzuek erakutsi dute Alzheimer eta dementziaren sintomak atzeratzen dituela hizkuntza bat baino gehiago menperatzeak. Dena dela, beste ikerketa batzuek ez dute horrelakorik topatu eta, momentuz, zuhur ibili behar da horrelako mezuak zabaldu aurretik.

Arrunta al da elebakarra izatea?

Arrunta oso hitz arriskutsua da, jendeak arrunta eta desiragarri berdintzen dituelako eta ez-arrunta, beraz, arrotza, ez-desiragarri edo saihestu beharrekoa bihurtzen delako. Elebakartasuna edo eleaniztasuna pertsona baten edo talde baten denboraren, lekuaren eta klasearen ondorio izaten da. India bezalako herrialde batean, non 22 hizkuntza erabiltzen diren, gehiengoa eleanitza da, bere faktore sozialek horrela determinatu dutelako. Hezkuntza sistemara sarbide eskasa duen Wisconsineko pertsona bat, ordea, elebakarra. Eleaniztasuna zein elebakartasuna bakoitzaren bizitzaren faktoreen eraginaren ondorio dira.

Elebidunek erraz egiten dituzte kode-aldaketak, zer gertatzen da garunean hizkuntza batetik bestera aldatzean?

Batek nahita egindako kode-aldaketa baldin bada, ezer ere ez, hizkuntza berean mantentzearen pareko da. Beste norbaitek inposatutako kode aldaketa baldin bada (adibidez, momentu horretara arte erabiltzen ari zinen hizkuntza ulertzen ez duen pertsona bat elkarrizketara etorritzerako), orduan kortex prefrontala aktibatzen da hizkuntza aldaketa hori ahalbidetzeko.

Hizkuntzak nahastea seinale ona da?

Ez da ez seinale ona, ezta txarra ere. Arrazoi asko daude atzean. Batzuetan hizkuntza batean hitz jakin bat topatzeko ezintasunetik dator, baina beste askotan arrazoiak enfasia eman nahi izatea, zerbait zehatzago adierazi nahi izatea, edo, beste barik, komunitate bateko parte izatearen seinale moduan erabili nahi izatea da.

“Elebakartasuna edo eleaniztasuna pertsona baten edo talde baten denboraren, lekuaren eta klasearen ondorio izaten da”

BERBAIZU

Otsailaren 29an gogoetarako bigarren saioa

Otsailaren 29an Berbaizu 2020-2030 jardunaldiaren itzulerako partida jokatu du Bidarten. Ordua eta lekua iragarrita dago jada: 09:30ean Bidarten. Zita garrantzitsua izango da bi arrazoiengatik: batetik, elkar-teak hamarkada honetarako plan estrategikoa aurkeztuko duelako eta, bestetik, berbaizukideek elkartearen norabidea erabakiko dutelako. Irail-eko jardunaldian ideia mamitsuak atera ziren eta bertaratuko dutenek lehenetsunak ezartzeko aukera izan-go dute otsailaren azken egunean. Anbizio handiko helburuak proposa-tuko ditu Berbaizuk eta euskaltzale guztien ekarpena ezinbestekoa izan-go da 2030ean Deustualde euskal-dunagoa nahi badugu.



LORALDIA

Seigarren edizioa hastear

Martxoaren 10ean hasi eta 29ra arte iraungo du aurtengo Loraldia Festibalaren seigarren edizioak. *Hamaika desira!* lemapean mu-sika, teatroa, dantza, literatura, zinema, gastronomia eta bertso-larritza nagusituko dira 20 egunez Bilbon. Aurten euskal kulturako zenbait erreferente izango ditu gogoan jaialdiak, Joseba Sarrio-nandia, Iparragirre, Agustin Xaho edo Fermin Muguruza, esaterako. Nazioarteko kulturegileren bat ere gogora ekarriko ditu, izan ere, Bob Dylan euskararen unibertsora ekartzea lortu dute. Bilboko 15 gune ezberdin euskararen plaza bi-lakatuko ditu Loraldia Festibalak, produkzio berriak, era guztietako dizi-plina artistikoak eta estreinal-diak eskaintzearekin batera.



LANAK

Kanaleko paseale- kua ireki dute

Otsailaren 18an Deustuko Kanala-ren eskumako ertzeko pasealekua-ren hesiak kendu eta oinezkoentzako ireki zuten. Elorrietatik Erriberako zubira, Frank Gehry izenekora, lu-zatzen da, guztira bi kilometro. Bes-talde, San Inazio eta Erribera lotzen dituen zubia urtarilaren 29an ama-i-tu zuten. Oraindik ez dago erabilga-ri, zubiaren inguruak ez baitaude egokituta. Apirilean lan horiek in-hastea aurreikusten dute eta ekai-nean guztiz amaituta izatea espero dute. Zubiaren izena adostea izan-go da hurrengo pausua. Momentuz, Udalak aurreratu duen bakarra da emakume izena izango duela.



Berri onak!

Hilabeteak daramatzagu PREST! aldizkariaren egoera la-rriaz ohartarazten. Aurten dirulaguntza guztiak atzeratu izanak alarma piztera behartu gaitu, ekonomikoki zeharo baldintzatzen gaituztelako. Gorabehera handiak tamainako buruhausteak ekarri dizkigu, baina nola edo hala ari gatzai-zkio egoerari aurre egiten. Dagoeneko jaso ditugu 2019ko dirulaguntza guztiak, urte erdi baino gehiagoko atzerapena-rekin. Lasaitua hartu dugu, baina ezin dugu alarma guztiz

itzali. Izan ere, 2020ko dirulaguntzak berriz atzeratu dai-tezke eta horrek arazoa luzatu baino ez luke egingo. Pixka-naka zorrak kitatzen hasiko gara, baina dirulaguntzak noiz etorriko diren jakin arte zuhur jokatu behar dugu, likidezia arazorik berriz ez izateko. Beste behin ere, eskerrik beroe-nak eman nahi dizkizuegu era batean edo bestean egoera latz honi aurre egoten lagundu diguzuen guztiei, zuek gabe PREST! aldizkaria ez litzateke posible izango.



Urtea: 1933

Txema Luzuriaga

Gor-mutu eta Itsuen Eskola

Deustuko Madariaga etorbidearen amaieran zegoen Bizkaiko Gor-mutu eta Itsuen Eskolaren aireko argazkia. Ezkerrean Uztaran Jauregia nabari da. 1894. urtean jarri zuten eskola honen lehenengo harria. Bertan zurgintza, apaintze teknikak, igeltsu lanak, txistua, danbolina eta marrazketa bezalako lanak irakasten ziren. 1979an Loiura mugitu zuten eskola eta 80ko hamarkadan suak hartu eta egin zuten. 2002an Ibaigane Ikastetxera ekarri zuten berriro Gor-mutu eta Itsuen Eskola. Hau ere desagertu da gaur egun. Miguel Uriak lagatako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

Iragar zaitez
Prest!-en
tel. 94 447 10 42
bilbokoaldizkariak@gmail.com

A Z L A
TATTOO STUDIO

Errondoko kalea z/g. Ibarrekolanda
tlf. 640 903 311
instagram: @azala.tattoo


YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303


Optica
Aranda
Agirre Lehendakaria, 147 Tfonos:
SAN INAZIO 94 475 11 24

ATXURI
TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso
Pertsianak
Plaza Celestino M^a del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net



Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Yoki Berri
Taberna
Good vibes!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Florería
La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze
jantziak...garbitzen ditugu

artez
euskara zerbitzua
Probatu
herrizki.eus
ANDROID APP Google play Apple App Store
BIZKO JAKINARAZIA GOBERNU YOSKO BFA OFE

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez! 

Nailan
Parquetak - Bamizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO
HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS
CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneke, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL: persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23


**Zer deritzozu aurten
Deustuko jaietako
ekintza gehienak Done
Petrin egiteari?**



**Jone
Deustu**

Ondo iruditzen zait goiko gu-
nea indartzea eta erdigune
bilakatzea, baina uste dut
jai ereduaren inguruko ara-
zoak bertan jarraituko duela
eta lan egiten jarraitu behar
dugula.



**Ane
Ondarru**

Ni ez naiz bertokoa eta ez da-
kit oso ondo zelan izan den
beste urte batzuetan, baina
sentsasioa daukat Botikaza-
rreko gunea kontrol gabeko
gunea zela. Itsasadarrek
zakarrez beteta bukatzen du
beti, denak balioko balu be-
zala jokatzeko duen jendeak.



**Ainhoa
Deustu**

Jai herrikoiak nahi baditu-
gu jaiak herrian izan behar
dira, eta hare gehiago he-
rriko plazan.



**Ibon
Hernani**

Egia da itsasadarrean zarata
handiagoa egin daitekeela
ez dagoelako auzokiderik,
baina egokia deritzot jaie-
tako programa herriaren er-
digunera hurbiltzeari.



**Oier
Ibarrekolanda**

Etorkizunera begira, inizatibak
jarraikortasun esponentziala
izango badu, positiboa deri-
tzot. Jaiak herriaren erdigu-
nean ospatu behar dira.



**Gorka
Deustu**

Ondo iruditzen zait. Txosnagu-
nea oso urrun dago eta bada
garaia herriak zentralitatea har
dezan. Egokiena plaza bate-
ratua izatea litzateke, baina
bitartean pixkanaka auzoaren
erdigunera igo behar da gaur
egun txosnaguneari egiten den
egitaraua.



harkua bete berba

>> ANTZERKIA

‘ETAREN AGIRI BULEGOA’, METRAILETA BATEN ERRITMORA BIZI DEN KOMEDIA

Gilkitxaro antzerki taldeak estreinatu berri du “ETaren agiri bulegoa” antzerki laburra. Bulego batean kokatzen da, antzezlanea, bi protagonista Petral Bilbao eta Makal Xiberu. Ane Zabala eta Galder Perez aktorek gorpuzten dituzte.

Gilkitxaro antzerki taldeak estreinatu berri du “ETaren agiri bulegoa” antzerki laburra. Bulego batean kokatzen da, antzezlanea, bi protagonista Petral Bilbao eta Makal Xiberu. Ane Zabala eta Galder Perez aktorek gorpuzten dituzte. Durangoko azokan estreinatu zuten San Agustin antzokiko bulegoetan, “eszenatoki gunean enkargua egin zigun pieza labur bat sortzeko, kultura ardatz hartuta, bulego batean kokatzen da trama” kontatu digu Galder Perezek.

Durangoko azokarako espresuki sortutako antzerki pieza bada ere “edozein plazatan” aurkeztu daitekeela azpimarratu dute. Izan ere Abenduan entrenatu ostean izan dira Lemoan, Biran edo Plentzian, eta aitortu digutenez “ikuslegoak barrez hartu du antzezlanea”.

Dena bulego batean gertatzen da “Non hartzen dira herri honen erabakiak, bulego ala barrikadetan?” galdera horri bota digu Ane Zabalak. Petral Bilbao ETaren agiri bulegoko langilea da. ETaren zigiluak banatzea da bere eginkizun bortitza. Makal Xiberu bulegora dator, eginkizun sekretu batekin. Hori da antzezlan honen laburpena, asko gehiago ezin dutela kontatu nabarmendu dute

Zabalak eta Perezek, izan ere erritmo bizian doan antzezlanean asko gertatzen da. Bulego batean kokatu dituzte bi pertsonaiak eta Galderrek Galdera bota digu “Zer gertatuko litzaiguke artean ere industrian bezala halako bulegoetan hartuko balira erabakiak?”. Bulegora eraman dute akzioa izan ere euren ustetan herri honetako erabaki asko eta asko bulegoetan hartzen dira herritarrak kontuan hartu gabe. Umorea ezinbesteko tresna da Gilkitxaro antzerki taldean eta oraingoan ere horrela izan da. Muturrera eramandako bi pertsonai sortu dituzte. Nahiz eta konbentzita dauden Euskal Herriko eraikin erraldoiren batean horrelako pertsonekin topo egin dezakezula “komedia baten argi dago pertsonaiak muturrekoak izateak aukera gehiago ematen dizula gizartearen satira egiteko eta kasu honetan horrela landu ditugu pertsonaiak, esaterako nik Petral Bilbao gorpuzten dut eta Teleberrria ikustea nahiko izan da nire pertsonaia sortzeko” kontatu digu Ane Zabalak. Antzezlanea oso gaur eguneko delatza azpimarratu dute, “Zer da gure artean axola duena benetan?” antzezlanean planteatzen den beste galderetako bat da. Sekretuz beteriko bulegoan hogei minututan gertatuko dena jakin nahi

izan ezker emanaldi batera hurbiltzeko gomendioa eman digute.

Erritmo bizia

Erritmo bizia eta azkarra duen antzezlanea da, “metraileta baten erritmo bizia duen komedia dela azpimarratu dute, “Ikuslegoak ez du arnasa hartzeko denborarik izango, izan ere erritmo bizian duen antzezlanea da, ia konturatu orduko bulegotik alde egingo dute bi pertsonaiak”. Gertuko antzezkie da, ikuslegoa bulegoan barruan izango da eta aktoreak gertu izango ditu antzeztzen “Ikuslegoak keinu eta aktoreen arnasa entzuteko aukera izango du, nahiz eta gertu badauden ez dute parte hartzen voyer bat izango da, azkenean denok gara bulego horretako parte”. Antzezlanea “Sentitu eta usaindu ere egiten da” azpimarratu du Galder Perezek. Kontatu digutenagatik usaina antzezlan osoaren zehar oso presente dago. Erreferentzi asko dituen antzezlanea da “baina erreferentzi guztiak ezagutzen ez badira ikuslegoak ez du ezer galduko”.

Beraz, badakizu, zu deustuar, zu ez deustuar, zu bertsozale, zu ez hain bertsozale... bai, zu, beso zabalik hartuko zaitugu otsailaren 8an!



Gure ikasleen ahotan

“Zerbait ezberdina probatu nahi nuen. Horregatik aukeratu nuen Mondragon Unibertsitatea”

*Julen Iglesias (Deustu, 18 urte)
Ikus-entzunezko komunikazio
gradua ikasten ari da Mondragon
Unibertsitateko Humanitate
eta Hezkuntza Zientzien
fakultatean, Aretxabaletako
campusean.*



Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak? Baduzu hobby edo zaletasunik?

Egia esan, hainbat lekutan ibilia naiz. Hona etorri baino lehen, Botikazar Institutuan nengoen, zientzietako ibilbidean, baina azkenengo momentuan erabaki nuen zientzietatik pixka bat aldentzea eta orain Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten ari naiz. Nire zaletasun nagusiak musika eta bideojokoak dira, baina festa ere gustuko dut.

Zergatik aukeratu zenuen Ikus-entzunezko komunikazio gradua Mondragon Unibertsitatean?

Gradu honetan sartu nintzen ikus-entzunezkoen mundua oso polita iruditzen zaidalako, artea eta teknologia batzeko modu bat baita. Mondragon Unibertsitatea hautatu nuen batez ere bere metodologiagatik. Zerbait ezberdina probatu nahi nuen.

Nolakoa izan da orain arteko esperientzia?

Denbora gutxi daramat baina orain arte egin-dakoarekin oso pozik nago eta horrela jarraitzea espero dut. Hala ere, apur bat arraroa da azterketarik ez izatea.

Nola definituko zenuke Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultateko ikasteko metodologia?

Nahasia, baina zentzu onean. Izan ere, inoiz ez dut metodologia honekin ikasteko aukerarik izan eta pixka bat arraroa egiten zait. Baina gustatzen zait.

Zer da gehien gustatzen zaizuna Unibertsitatetik? Zer hobetuko zenuke?

Gure campusean dagoen material eskaintza da hoberena, dudarik gabe. Oso baliagarria da klaserako eta esperimendazioak egiteko, eta nahiko erraza da material hori hartzea erabiltzeko. Hobetzeko, wifi konexioa esango nuke, loteria bat baita. Batzuetan badator eta gero joan egiten da.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak?

Momentuz, graduak eskainiko didana ikusi nahi dut, baina niri musika ekoizlea izatea gustatuko litzaidake. Halere, graduaren ikusitako beste gauzatxoak ere oso interesgarriak dira, nork daki non amaituko dudan lanean! Beraz, ibilbideaz disfrutatzea besterik ez zait geratzen.

2013ko euskal ezkontzaren dantzaldia ibilbidearen amaieran Done Petri plazan notarioaren irakurketaren ondoren.



>> JAI HERRIKOIAK

MIKELDI DANTZA TALDEAK EUSKAL EZKONTZA OSPATUKO DU MARTXOAREN 15EAN

Badira 25 urte baino gehiago Deustun Euskal Ezkontza antolatzen duela Mikeldi dantza taldeak eta aurtengoak badu data: martxoaren 15a.

Testua eta argazkiak: Mikeldi Dantza Taldea

Euskal Ezkontza antolatzeko proposamena Matxintxuko irakasle eta zuzendari ohia zen Luxie azkoitiarrak luzatu zion Mikeldi Dantza Taldeko garaiko irakasle zenari, Edurne Kortazarri. Lehen antzezlan hura, duela 25 urte baino gehiago egin zena, hiru urterik behin errepikatzen saiatu da Mikeldi. Deustuko hainbat talde eta herritarrei luzatzen diete beti ospakizunean parte hartzeko gonbita, eta aurtén ere helburua auzoko hainbat alorreko jendeak parte-hartzea da.

Antzinako euskal ezkontza antzeztén dute eta ahalegin berezia egiten dute orduko itxura errespetatzen. Handik datoz pertsonaien antzinako arropak, idiak eta gurdia, ezkongaiantzako opariz, maindire, sukalderako tresneriaz betetzen dutena. Zenbat eta besteago, orduan eta aberatsagoak ziren ezkongaiak eta zenbat eta gurdi gehiago, orduan eta aberatsago ere. Deustun erdi-mailako familia jokatzén dute gurdi bakar batekin.

Antzezlan antolatzeak aurre-tiazko ikerketa lana dakar eta, adibidez, garaiko benetako ezkongaien izenak Derioko Erregistro Zibilean bilatu zituztén. Mikeldik eginiko azken ikerketan, 1879ko Guillermo Achaerandio Arteche eta Concepción Donata Basabe Marcaida ezkongaiak aukeratu zituen ezkontzarako. Achaerandio sondikarra zen eta 24 urte zituen Deustura ezkondu zenean. Basabe Deustuko etxeakoandrea zen, ordea.

Euskal jantziei buruzko liburuetan murgildu dira dantza-taldekoak XIX. mendeko amaierako janzkera ikertzeko asmoz. Aukeratutako sasoiko arropen patrioiak atera eta jostunei egitea proposatu zieten orain urte batzuk. Horrek taldeari dirua aurrezte eta inbertsio garrantzitsua egitea ekarri zion. Pertsonaia asko daude antzezlanean, jantzi beste: ezkongaiak, senarraren gurasoak, emaztearen gurasoak, alkatea, apaiza, eliz mutila, notarioa, mediku gizona

2007ko euskal ezkontzako kalejira idien gurdiaren atzetik.



harkua bete herba

eta emaztea, indianoak, inudea, argazkilaria, andereñoa eta jos-tunak, besteak beste.

Ezkundu aurretik, ezkongaiak, gurasoein batera, ezkontza-hitzarmenaren notario-idazkia (kontratua) sinatzen zuten notarioaren aurrean. Orduan ere, neskaren lagunek ezkontza-opariak etxe berrira eramaten zizkiten, ez bazituzten gurdian bertan uzten.

Aurtengo Euskal Ezkontza martxoaren 15ean izango da 12:00etan Done Petri plazan. Bertan, gurdia apaindu eta betekote dute. Ezkongaiak prest daudenean, Deustuko kaleetan kalejiraz aterako dira musikariak doinuaz lagunduta. Bidean,

geldialdi pare bat egingo dituzte dantzaldiari eta abesbatzari tartea utziz, Deustuko Kantugintza taldearen eskutik. Amaieran, azken dantzaldia, bertsoak kantatu eta antzezlanak jokatu dute plazan. Notarioaren aurreko idazkia irakurri eta, bukaeran, brindisa eta talde argazkia egingo dituzte.

Beraz, martxoaren 15ean etorri Done Petrira Euskal Ezkontza ospatzera! Gonbidatuta zaude!

2010eko euskal ezkontza ospakizunaren amaierako talde argazkia.



2016ko euskal ezkontza ospakizunaren amaierako talde argazkia.



NIRE AZKEN DANTZA

martxoaren 13tik
martxoaren 22ra

www.pabellón6.org



PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

BAKAILAOA PIL-PIL ERARA

Otsailarekin batera Ramon y Cajal zeharkaleko 4. zenbakira gerturatu gara, berriz zabaldu duten Gallastegi jatetxera hain zuzen. Nati jabeak, Ibon sukaldariak eta Roberto tabernariak bertako sekretuak kontatu dizkigute.

Zailtasun maila: Handia

Egiteko denbora: Ordu erdi

Prezioa: Asteburuko menuaren barruan (20€)

Bereztasuna: Bakailaoaren eta olioaren kalitatea.

Kontu batzuk

Tradizio handiko jantokia da Gallastegi, 1935. urtetik Ramon y Cajal zeharkalean egonkortua. Ia hiru urtez itxita egon ostean, 2019ko abenduan berriz zabaldu du jabe berri batek. Etxeko janaria egiten dute egunero. Asteazken zehar eguneko menua eskaintzen dute eta larunbatetan berezia. Taldeentzako afariak ere prestatzen dituzte enkarguz, eta egunero gosariak dituzte prest 07:30etik aurrera. Pintxoetan bereziena boletus tortilla da.

Gallastegiko Roberto, Nati eta Ibon



Gallastegi

Travesía Ramón y Cajal, 4
Deusto-Bilbao

946 025 964

GALLASTEGI

Ramon y Cajal zeharkalea 4
Deustu

946 025 964

@gallastegi_deusto



barkua bete herba

Zelan egin?

Lehena, berakatza eta pipermina oliotan konfitatu behar dira. Epeltzean bakailaoa gehitu eta estali. Su motelean 7 edo 8 minutu izan behar

dugu, gehiagorik ez. Nohizbehinka lapikoa mugitu pil-pila loditu arte. Aurkezteko berakatza eta pipermina jarri gainean.

OSAGAIK

Bakailaoa
Oliba-olio birjina
Berakatza
Pipermina



Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!

Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...



Ramon y Cajal, 24
DEUSTUA

Tfnoa: 94 447 45 00



San Pedro plazako
frontoiaren atzean



ZURE PINTXO
ONENAK GUREKIN
KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN



kultur txontx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa



MIKELDI DANTZA TALDEA

GOZATU DANTZAZ PAREKIDETASUNEAN!

Duela bi urte Euskal Herriko dantza solte txapelketan bi neskek osatu zuten bikotea. Gaur egun, horrelako parte hartzeak normaltasunez ikusten hasiak gara, baina ez dira urte asko pasatu euskal dantzaren munduan emakumearen parte hartzeari buruzko eztabaida sutsuak izaten genituenetik: neskek dantza egin ditzakete mutilek dantza egin izan dituzten dantzak? Gipuzkoako alardeetan bezalaxe, hemen ere nolabaiteko desadostasuna geneukan. Hori uste genuen, behintzat. Paradoxikoki, dantzarik adierazgarrienak emakumeok dantzatu gitezkeen hausnartu bitartean, gure herriko erromeri eta dantza taldeetan emakumeek protagonismoa hartu eta gizonezkoen presentzia murriztuz joan zen.

Gizonezkoek gustua galdu ahal diote dantztatzeari? Kirol munduarekin dagoen konpetentzia kontua baino ez da? Zer gertatu da dantza-kulturaren transmisioan? Heziketan ez zaio dantzari garrantzirik ematen? Zergatik? Ez da fisikoki erakargarria mutilentzat dantztatzea?

Erantzuteko ditugu galdera asko oraindik, baina dantzaren indar kultural, fisiko eta emozionalaren garrantzia azpimarratu nahi dugu hitz labur hauetan. Gure herriaren historiaren isla izateaz aparte, dantza egiteak herritartu egiten gaitu, fisiko eta emozionalki ondo sentiarazten laguntzen digu, eta, batez ere, ondo pasatzeko aukera paregabea ematen digu bai mutil zein nesko. Gozatu dantzaz parekidetasunean!

EZETZ ASMATU NOR NAIZEN

Doinua: Hil da Canovas



LIBE MARTINEZ DE RITUERTO

Elorri bertso-eskolako kidea

Gaurkoan nator inspiratuta
jolasteko prest zaude zu?
Asmakizun bat dakarkizut ta
ondo pentsatu ezazu
pertsona, gauza edo jolasa
dibertigarri edo indartsu
denboraz justu gabilta eta
has gaitezen ba gogotsu
zein naizen ondo definituta
hemen ikus dezakezu

Saiatzen naiz herriari ematen
falta zaion kolorea
beso zabalik hartu ohi nauzue
izan zahar, izan gaztea
egun hauetan janzten dezute
hau, hori edo bestea
Brasilen, Deuston edo Tolosan
ezta zaila ni ikustea
orain zuei dagokizue
nor naizen ni asmatzea

10-18 urte dituzu?

harrapa zank

Bilboko artista gazteentzako talentu lehiaketarik dibertigarrienean parte-hartu nahi duzu? prestatu zure ikuskizuna eta 500 euroko saria eraman!

eta...esperientzia berriak bizitzea gustoko baduzu eman izena Harrapazank Arratsaldetan eta probatu: teknologia, sorkuntza, dantza, urban artea...

Izena ematea www.harrapazank.eus gunean urtarilaren 7tik otsailaren 28ra

Bilbon euskaraz

HI(ZKI)BRID^oAK LITERATURAREN ETA AH^oZKOTASUNAREN ARTEKO MUTAZI^oAK DIRA.
LETRAK, SOINUAK, BERTS^oAK ETA IRUDI^oAK ERALDATZEN DITUZTEN EKITALDI^oAK.
EMAITZA LITERATURA MUTANTEAK DIRA, ZENTZU ZABALENEAN.

HI(ZKI) BRI DOAK

Literatura
mutanteak

Otsailak 27

DO
AN

Euskararen Etxean
19:30ean

BUZTINEZKO ETORKIZUNA

Itxaro Borda irakurketan,
Ibon RG musikan.

Martxoak 25

DO
AN

Euskararen Etxean
20:30ean

MUGA

Anfetamiña Xabier Montoiaren
lehen liburuan oinarritutako eta
Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak
argitaratutako egitasmoa.

Apirilak 23

DO
AN

Euskararen Etxean
19:30ean

BERTS^o SAIO LITERARIOA

Mari Luz Estebanek kantuan
jarriko ditu Miren Amuriza eta
Maialen Lujanbio.

Maiatzak 15

DO
AN

Euskararen Etxean
19:30ean

HABI^oAK

Anariren lan homonimoan
oinarritutako arte erakusketa
kolektiboa. Anari taldeak Habiak
diskoa joko du zuzenean.

Sarrera: gonbidetan bidez egingo da.

Maiatzak 28

DO
AN

Euskararen Etxean
19:30ean

ORAINMENEAN

Txakur Gorria Sormen Kolektiboa.
bertsolaritzaren genealogia
feminista.



Euskararen Etxea
Agoitz Plaza 1 • 48015 Bilbo
Metroa: San Ignazio (Lekeitio irteera)
www.euskararenetxea.eus

ANTOLATZAILEAK


Euskararen Etxea

 **Bizkaia**
foru aldundia



LAGUNTZAILEAK

 BOOKTEGI

 **Lanku**
www.lanku.eus

LOR-LDIA
ETXERAK, KULTURA GAIERAK